



Pil-pilean

TRUKOIA

Soraluzeko hilabetekaria
2024ko abendua · 417 alea

ZENBAKI HONEKIN BATERA
HARIAN GEHIGARRIA



ETXEBIZITZAK HERRIAN
MEHATXUAK ETA AUKERAK



PIL-PILEAN 417

2024ko abendua

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Bote prontuan Aitor Gonzalez | IRITZIA |
| 6 | Begira Mediavilla txapeldun bikoitza | 3 Neuretik Jokin Oregi <i>Katuarena</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 14 Gutunak G&V eta bere lagunak <i>1.500 euroko elkartasuna paella solidarioarekin</i> |
| 12 | Argazki bidez Emakumeen bilduma | 14 Komiki tira |
| 16 | Erreportajea Etxe premiaren eskaintzaren eta eskaeraren arteko oreka bila | 15 Hausnarketa Herritarren testigantzak etxebizitzaren gaiari loturik |
| 24 | Kirola Bueltan da San Silvestre | 15 Puntua Ivan Caballero <i>Kuriositatearen beharra</i> |
| 26 | Kultura Oholtzara Oskarbirekin | |
| 28 | Sakonean Atzera begiratzetik infinitua marraztera | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



SORALUZeko UDALA

Katuarena



JOKIN OREGI

Gaeuz izarrak teilatuetan saltoka
ñir-ñir zuhaitz adarretan
kale bazterretan korrika,

*Zer dira ba izar bihurriak?
izar usoak ez, izar katuak bai,
zer dira ez badira katuen begiak?*

Katu beltzak gauean ikusezin
argi printzak, hauts magiko
historia bihur dezagun ipuin.

Amamaren amamak kontatu omen zion amamari behin Plazentzian gertatutakoa: Mari izeneko neskatila batek katua eraman nahi zuen etxera, familiako parte izan zedin. Temoso zebilen gaiarekin, beti purrustadaka, katua nahi zuela eta ez zuela besterik nahi. Haren amak, berriz, katuei sekulako beldurra zien eta ez zuen etxean katurik nahi. Uste zuen katuak emakume bihurtzen zirela gaeuz, eta emakumeak katu.

Behin, ama-alaba kaletik zihoazela katu beltz batekin egin zuten topo. Han zegoen katua esmeralda koloreko begi bi haiekin, laztan eske baina mesfidati, mimo zale baina ihes egiteko prest. Mari hurbildu egin zitzaion amaren gogoz kontra, eta katua laztantzen hasi zen. Bat-batean, baina, katuak harramazka egin zion eta eskua zauritu zion. Ama garrasika batean hasi zen alabari katuarengandik urruntzeko eskatuz. *Zatoz, alde hortik, fu-fu katu txarrixa!!* Baina alabak ez zuen hanka egin, katuaren ondoan geratu zen, ausart, lasai. Katua ere hantxe, ez aurrera eta ez atzera. Mari, irribarrea ahoan, berriro ere katua laztantzen hasi zen. Ama zur eta lur geratu zen alabak erakutsi zuen adoreagatik, baina batez ere katuak oraingoan ez ziolako zer txarrik egin alabari. Kontrara, Mariren laztanak esker onez jaso ondoren zauria miazkatzen hasi zitzaion erabat sendatu zuen arte.

Amak zera ikasi zuen: bizitzan, batzuetan, bigarren aukera bat ematea zilegi dela.

Katua etxera eraman zuten eta ondo zaindu ere. Katua eurekin bizi izan zen zahar-zahar egin eta hil zen arte. Harrezkero, esaten dute dutelako esaten, ama-alaba erdi sorgin bihurtu zirela eta katu beltz bihurtzen direla gauetan Plazentziako gainerako katuekin dantzan egiteko, teilatuetan salto, ñir-ñir zuhaitz adarretan eta kale bazterretan korrika.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Plazentziako zubian!

**BAINA ALABAK EZ
ZUEN HANKA EGIN,
KATUAREN ONDOAN
GERATU ZEN, AUSART,
LASAI**

“Zeliakiak kaltea eragiten du hesteetan, intolerantziak ez”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TXURRUKA

Aitor Gonzalez (Soraluze, 1980) zeliakoa da. Baita bere seme-alabak ere. Gaixotasun zeliakoa heste meharraren estaldurari kalte egiten dion gaixotasun autoimmunea da. Glutena irenstearen aurka gorputzak duen erreakzio batetik dator kalte hori. Glutena zereal batzuek duten proteina da: gariak, espeltak, garagarrak, zekaleak eta oloak. Osasun kalteez gain, buruhauste asko eragiten die horrek, baita gastu ekonomikoa ere.

Zelan jakin zenuen zeliakoa zinela? Noiz?

Orain dela 13 urte, semearen bitartez. Baina lehenago ere, pentsatzen nuen zerbait neukala. Bazkaldu, afaldu ondoren, beti tripako mina, batzuetan botaka... Infusioaren bat hartu ostean, batzuetan pasatu egiten zitzaidan baina beste batzuetan gaizki jarraitzen nuen.

Seme-alabei jaiotzatik diagnostikatu zieten?

Urtebeterekin, Eneko (2011) behin lurrean etzanda gelditu zen merienda ostean, tripako min handia zuelako. Beti pentsatu genuen zerbait zuela, ez zuen pisurik hartzen... Egun horretan, larrialdietara joan ginen eta han, zorionez, lanean zebilena digestiboa zen. Umea ikusi eta bere kontsultara eramateko esan zigun. Enekorri odola atera eta gastrokopia (Gurutzetan, Bilbon) egin zion. Denak eman zuen positibo. Gero, gurasooi egin zizkigun probak. Nik ere bietan positibo, andreak negatibo. Glutena laga ondoren hasi nintzen konturatzen tripako-minak eta beste guztia hobetu zitzaizkiala. Esan ziguten Euskadiko Zeliakoen Elkartera (EZE) apuntatzeko, zalantzak argitu eta gaiari buruz informazioa lortzeko. EZEK urtero ematen dizkigu liburu batzuk eta han daude ipinita zein produktuk ez duten glutenik, zein jatetxek, umeek zein litxarrerria jan ditzaketena... Ainarari ere urtebete zuenean diagnostikatu zioten, baina jaio zenetik egon zen kontrolatuta.

Elikagai arrunt mordo ezin dituzue kontsumitu. Zelan moldatzen zarete?

Lehen oso zaila zen. Ez zuten etiketetan alergenoen berri jarri beharrik eta erosketetan bi ordu edo gehiago pasatzen genituen osagaiak irakurtzen.

Askotan Mirandara joaten ginen, Mercadonara, han gluten gabeko produktu asko zituzten. Zorionez, orain dela urte batzuetatik hona, dendetako produktu gehienetan jartzen du zein den gluten gabekoa. Soraluzen ere toki batzuetan saltzen dituzte gluten gabeko produktuak.

Prezio aldetik zelan? Baduzue laguntasunen bat?

Urtean, zeliakook gainerakoek baino 1.087 euro gehiago ordaintzen dugu erosketetan (2024ko datuak). Bizkaian, urtean 80 euro ematen dizkiete; Araban ere zerbait; Gipuzkoan zero.

Etiket kanpo zelan moldatzen zarete?

Kanpora goazenean, apartamentuk, landetxeak... hartzen ditugu, jatorduak guk prestatzeko. Batzuetan jatetxeetara ere joaten gara. Gaur egun, leku batzuek FACE zigilua dute. Horrek esan nahi du leku horretara “lasai” joan gaitezkeela.

Eta umeen urtebetetzeak, txangoak-eta?

Lehen oso zaila zen; guretzat berria bazen, imajinatu besteentzat. Guraso batzuk beldurr ziren, ez zekiten zer egin. Kontatzen genien nola egin eta poliki-poliki ulertzen zuten. Beste batzuetan, ogitartekoak etxean prestatu eta urtebetetzeetara eramaten genituen. Eskolako merendoletan-eta ez dugu arazorik izan, beti zuten zerbait nire seme-alabentzat gluten gabeko gailetak, txokolata... Gailetak eta ogia eraman behar zutenean, berriz, irakasleak denei esplikatzeko zien Ainarak eta Enekok ezin dutela jan. Horrela errazagoa izan da. Orain, jaietan, lagunekin afaltzen-edo gelditzen direnean, abisatu egiten digute, guk ogitartekoa prestatu eta eramateko. Herrian oraindik leku batzuetan ez dute zeliakoentzako, jaietan gutxiago, edo guk, behintzat, ez dakigu. Dena den, jendeak, poliki-poliki, normaltasunez hartzen du eta orain galdetzen dute bazkariaren bat prestatzean zer behar den...

Zeliakoa eta intolerantea izatea berdina da?

Ez. Zeliakia gaixotasun autoimmunea, glutena hartzeak heste meharrak kaltetzen du. Glutenarekiko intolerantziarekin, berriz, hantura edo sabeleko mina bezalako sintomak izan daitezke, baina hesteetan kalterik eragin gabe.





Mediavilla txapeldun bikoitz

ARGAZKIA: CARLOS MEDIAVILLA

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Abenduaren 14an egin zuten Kontrargiren XXXV. Argazki Rallyaren sari banaketa. Carlos Mediavilla Arandigoien izan da aurtengo txapelduna eta gainera, sari bikoitza eskuratu du, Blues Hotsak-en sari berezia ere berarendako izan baita. Argazki horixe da, justu, ondokoa. Nikon d850 batekin atera zuen, iso 400, 3.2 diafragma eta 400 abiadarekin. Mediavillak esplikatuenez, "bi tipo daude argazkian musikarekin gozatzeko, bere gorroa, kateak, tatuajek, betaurrekoak... Dena konpleto argazkirako. Gitarrarekin enkuadratu nuen eta enfokea betaurrekoetan jarri".

Gatazka Avanzarekin

LANGILEAK GREBAN DIRA ETA ALKATEEK PROTESTA EGIN DUTE PUBLIKOKI

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Puri-purian dago Avanza enpresak (PESA) Debarroan eskaintzen duen autobus zerbitzuaren gatazka. Hainbat fronte ditu irekita enpresak.

Batetik, langileak enegarrenez greban dira, oraingoan abenduaren 22ra arte, jarraipen handiarekin, Lan Batzordea osatzen duten sindikatu guztiek egin baitute protestarako deia. Lan Hitzarmena berritzea eta autobusen egoera eta mantenu egokia aldarrikatzen dituzte, besteak beste.

Aste honetan, Batzar Nagusietan

Bestetik, erakundeetako ordezkariak ere aurrez aurre ditu Avanzak. Joan den astean, Debagoieneko alkateek agerraldi publikoa egin zuten Avanza enpresari kontratua ez luzatzeko eskatzeko, eta, aste honetan, Batzar Nagusietan izan dira Gipuzkoako EH Bildurekin batera. Han helarazi zuten, "kalitate galera gertatu" da Avanzak eskaintzen duten zerbitzuan zein autobusen mantenuan. Halaber, enpresako lan gatazka bideratzeko, Aldundiari eskatu diote bitartekaritza lana egin dezala langileen eta enpresako ordezkarien artean.

Alkatea diputatuarekin

Testuinguru honetan, ugariak izan dira herritarren kexuak, baita soraluzetarrenak ere. Udalbatzarrean ere aipatu da gaia EAJk galdetuta eta Unai



Autobusa geltokian.

Larreategi alkateak jakinarazi zuen egon dela Azahara Dominguez Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako diputatuarekin eta hari helarazi dizkiola herritarren kexuak, bi, bereziki: behin baino gehiagotan bidaiariak geralekuan laga izan dituela autobusak, baita txartela zuten bidaiariak ere, eta, autobus asko berandu ailegatzen direla Soraluzera.

Alkateak esandakoaren arabera, ezustekoa hartu zuen diputatuaren erantzunarekin, hark esan baitzion hemengo bi intzidentziaren berri zuela

**DIPUTATUAK
ALKATEARI ESAN ZION
EZ DUELA
SORALUZETARREN
KEXUEN BERRIRIK**

bakarrik eta ez zutela beste kexuen berririk, ezta txoferren aldetik ere. Diputatuak gaineratu zuen, kexuak aintzat hartzen dituztela.

Hori ikusita, Soraluzeko Udalak dei egiten die kexuren bat duten herritarrei bide ofizialetatik ere helarazteko. (behean QRa eta helbidea). Bestalde, diputatuari esan zion kexu ofizialik ez bada, seguri aski izango dela herritarrek amore emanda daudelako erantzunekin.

Horrez gain, Larreategik uste du enpresak beharrezkoa duela digitalizazioan pausoren bat ematea, gutxienez jakiteko zenbat bidaiarik dituzten txartelak erosita, haiei bidaiari ziurtatu eta aldi berean, zerbitzuaren beharrak aurreikusita konponbideak ipini ahal izateko.

Azkenik, besteak beste, alkateak uste du autobus-lineak berrikusi egin beharko lirakeela, distantzia laburragokoak jarritz. Gasteiztik edo Aretxabaletatik datoz Soraluze Eibarrekin eta Donostiarekin lotzen duten autobusak. Bidean geraleku asko zailtzen du ibilbidearen bukaeran dagoen Soraluzera autobusak garaiz heltzea.



**Kexu ofizialak
aurkezteko: [labur.
eus/FYgKj](https://www.soraluze.eus/FYgKj)**



*bertso saio
musikatu*

Musikariak: Araitz Bizkaí Villanueva, Oihana Landa Ibarra, Gai jartzaleak: Ainhoa Urrien Teietxe

Berai Gaztelumendi Arandia, Ane Labaka Mayoza, Josune Aramendi Perez, Miren Artetxe Sarasola

*abenduaren 28an
19:00etan
Soraluze (Antzokia)*

Sarrera 8 euro:
Iratxo / Txarteldegia / bibe.me

ANTOLATZAILEA: bertSora Bertso Eskola
LAGUNTZAILEA: Soraluzeko Udala




ATEAK ETA LEIHOAK

*Gabon zoriontsuak
eta urte berrni on!*

Mota guztietako leihoen,
pertsianak, atea, barandilak
salmenta eta konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Sagar Erreka Kalea 2 - 20590 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com

negabi

ileapaindegia
Nerea Gabilondo estilista taldea

*Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

Santa Ana, 9 behea 943 75 12 63

Edukiontzi horira zer?

MANKOMUNITATEAK INFORMAZIO KANPAINA ABIATU DU

TESTUA ETA ARGAZKIA EGOITZ UNAMUNO

Debabarreneko Mankomunitateak *Birziklatu* kanpaina informatiboa abiarazi du Ecoembesekin batera, debabarrendarrei ontzi arinen bilketaren gaineko argibideak helarazteko.

Emaitza "katastrofikoak"

Igor Aldalur Mankomunitateko Ingurumen teknikariaren esanetan, emaitzak "katastrofikoak" dira: "Errefusaren edukiontzian topatzen ditugu beira, kartoia eta askotan, zabor poltsa handiak ontzi arinez beteta eta konturatu gara horietako asko direla garagardo latak eta tetrabrikak. Herritar askok uste dute edukiontzi horia 'plastikoen edukiontzia' bakarrik dela, ondorioz, ez dituzte botatzen ez latak eta ez tetrabrikak".

Ontzi arinei dagokienez, eskualdeko datuak "oso kezagarriak" direla adierazi du Aldalurrek: "Debabarrenean biztanleko 19 kilo jasotzen ditugu urtean, eta datu hori Gipuzkoako (40 kg) zein EAeko (29 kg) batez bestekoa baino baxuagoa da, baita Espainiar estatukoa (20 kg) baino baxuagoa ere".

Erdia Zubietako erraustegira

Datu orokorren arabera, urtean, 30.000 tona zabor sortzen dira Debabarreneko eskualdean, 425 kilo pertsonako, gutxi gorabehera. 30.000 tona



Algor Aldalur Debabarreneko Mankomunitateko ingurumen teknikaria.

horietatik 16.000 dira gaika jasotzen direnak, gainontzeko 14.000 tonak (%46), berriz, errefusa bezala biltzen dira. "Errefusa bezala jasotzen ari garen guztia Zubietako erraustegira doa. Hau da, edukiontzi grisera botatzen dugunaren %95 erre egiten da. Beraz, latak, papera, kartoia... denetik ari gara erretzen. Ondoko edukiontzira botaz gero, birziklatuko litzatekeen materiala erraustegira bideratzen ari gara, eta ingurumenari sekulako kaltea egiten".

**MANKOMUNITATEKO
TEKNIKARIAREN
ESANETAN, EMAITZAK
"KATASTROFIKOAK"
DIRA**

2 milioiko aurrezpena jokoan

Errefusean utzi beharrean, ontzi arinak, papera eta kartoia eta beira modu egokian birziklatuz gero, Debabarreneko Mankomunitateak ia 2 milioi euro aurreztuko lituzke urtean. Udalen kasuan: Eibarrek 804.119,52 euro, Ermuak 461.967,15 euro, Elgoibarrek 335.101 euro, Debak 159.636,000 euro, Mutrikuk 154.603,48 euro, Mendarok 58.020,19 euro, Soraluzek 114.226,34 euro eta Mallabiak 34.291,31 euro.

**2 MILIOI
AURREZTUKO LIRATEKE
BEHAR BEZALA
SAILKATUZ GERO**

Gasaren faktura aztergai

ETXEKO GASAREN FAKTURA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Gasaren fakturaren oinarriko informazioa lege bidez araututa dago, baina ez du zehazten informazio hori zein formatutan eman behar den. Beraz, merkaturatzaile bakoitzak bere erara ematen du.

Gasaren faktura ulertzeko oinarriko bi kontzeptu daude: merkaturatzailea eta merkatu erregulatua. Kontratatuta duzun merkaturatzailearen arabera, jakingo duzu merkatu askean edota erregulatuan zauden.

Merkatu erregulatua

Lau merkaturatzaile soilik dira merkatu erregulatuko tarifa (ABT-Azken Baliabideko Tarifa) eskaintzen dutenak: Gas&Power, Curenergia, Baser eta Energia XXI.

Merkatu erregulatuan prezioak arautuak daude eta merkaturatzaileak mugatuak ditu fakturatu ditzakeen gehieneko eta gutxieneko prezioak. Muga horiek Espainiako Gobernuak finkatzen ditu.

Merkatu librea

Merkatu librean kontratuaren baldintzak kontsumitzailearen merkaturatzailearen artean adosten dira eta aldiari aldiari, prezioak berrikusi egiten dira, kontratuan zehaztutako aldizkakotasunarekin. Gero eta gehiago, merkaturatzaileek kontratuaren baldintzak edozein unetan alda ditzaketela jasotzen dute kontratuarekin, eta,



ondorioz, komeni da arretaz jarraitzea gutun bidez, posta elektronikoz edo fakturan bertan bidaltzen dituzten komunikazioei.

Merkatuko baldintza normaletan, erregulatukoak baino merkeagoak diren tarifa libreak aurkitu ohi dira, nahiz eta beti dauden garestiagoak diren beste batzuk ere.

Online konparatzailea

Jakin nahi duzu zenbat ordainduko zenukeen merkatu libreko konpainia batekin edo erregulatukoarekin? Sartu Espainiar Estatuko Merkatuen eta Lehiaren Batzorde

Nazionalak (CNMC) sortutako online konparatzailean, jakinarazi zein hornidura mota nahi duzun, posta kodea eta zure urteko kontsumo datuak eta berehala, zure profilari egokitutako gas edota elektrizitate eskaintza guztien berri emango dizu.



CNMC-ren online konparatzaileara lotura



energia.debegesa.eus
agenda2030@debegesa.eus
943 82 01 10.

**ONLINE
KONPARATZAILEAK GAS
EDOTA ELEKTRIZITATE
ESKANTZA GUZTIEN
BERRI EMATEN DU**

Biribiltxoren ondarea

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: KONTRARGI (BIRIBILTIXOREN BILDUMA)

2024an, bete da mende erdia, Angel Bolunburu Furundarena *Biribiltxo* hil zela eta urteurren hori baliatuta antolatu du Kontrargik bere argazkiekin osatutako erakusketa: 1897tik 1974ra bitartean ateratako 600 argazkiko bildumatik aukeratutako berrogeita hamar argazki. Hainbat gai ageri dira argazkietan: futbola, dantza, ezkontzak, familiak... Baina ardatza, gai nagusia, emakumezkoak dira. Horiek aukeratu ditu propio Mikel Valero Kontrargiko kideak: "Pertsonak lehenetsi ditut eta batez ere, emakumeak. Zortea da garai hartako emakumeak argazkietan ikusi ahal izatea". Erakusketa abenduaren 30era arte izango da ikusgai. Bisitariei eskatu diete identifikazio lanetan laguntzeko.





GUTUNAK

1.500 euroko elkartasuna Paella Solidarioarekin

G&V ETA LAGUNAK

BATZOKIKO KUDEATZAILEA

Oso pozik eta eskerrak eman beharrean gaude Paella Solidarioak izan duen emaitzarengatik. 1.584 euro garbi lortu ziren eta dirua entregatuta dago arazo neurologikoak dituzten ikasleen Mondragon Unibertsitateko gelakoendako. Badakigu txangoak-eta egin ezinean ibiltzen direla diru faltarengatik. Paella Solidarioan 123 pertsonak bazkaldu zuten.

Beste batzuek ere egin zituzten ekarpenak: Fogaslerrek 200 euro, Bizikalek 200 euro, Txurrukeneko Jai Batzordeak 100 euro, Javier Alonso Zelaieta hortz klinikak 50 euro, Galletiak Mendaroko Artisauak 318 euro.

Eskerrik asko ekitaldian musu-truk parte hartu zuten txistulariei, Viva Eventos puzgarrien enpresakoei, sukaldariei, zerbitzariei, Anderra eta APA DJ-ei eta material ekarpenarekin edo azpiegiturak lagatzen lagundu zuten guztiei, Industrias Placencia, Bizimina, Soraluze Futbol Taldea, SoraGazteak Rugby Kluba, Garajes Garcia, Aritz Laskurain, Arrasate Rugby Kluba, SoraBox, Mendizabal okindegia, Iratxo, Real Sociedad Futbol Kluba, Eibar Futbol Kluba, Keller, Batzokia, Nerea Segura Elikabide, Plaentxia.eus, Motoclub Plaentxia, Iratxo Goxo-denda, Gogortuz fisioterapia eta Soraluze Udala.

Badakigu zenbait eragozpen egon zirela eta barkamena eskatzen dugu horienengatik. Norbaitek informazio gehiago nahiko balu edo fakturak

zuzenean ikusi, Batzokian daude edozeinen eskura.

Eskerrik asko bihotzez; espero dugu hurrengo ekimenetan ere zuen laguntza izatea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Etxebizitzak herrian

Herritarren testigantzak etxebizitzaren gaiari loturik



AINHOA IBARZABAL
MAPFRE INMOBILIARIA
ZERBITZUA

"Momentu honetan ez daukagu alokairuan eskaintzeko etxe bakar bat ere. Salmentarako ditugun etxe gehienak 'garestiak' dira, zaharrak eta handiak eta jabeek ez dute presarik saltzeko. Eskatzen dizkigutenak, berriz, etxe 'ekonomikoak' dira".



IBAI TAJUELO
GURASOENEA BIZI DA

"Hogeita bost urte dauzkat eta amarekin bizi naiz. Hipoteka baten sartzea zaila ikusten dut eta alokairuan hartzea pentsatu izan dut, baina etorkizunean nirea ez izateak atzeraka eragiten dit. Nire adineko lagun guztiak ere gurasoen etxean bizi dira".



MIRARI OREGI
ETXEJABEA

"Nik aitaren etxea erosi nuen, noizbait bertara joateko. Bitartean, hamar hilabetez alokairuan ipini nuen, konfiantzazko ezagun bati, oso merke, behar zuelako. Horri lotuta, nire ustez, Soraluzen hilean 500 euro baino gehiago kobratzea lapurreta egitea da".



ANTXON ALTUNA
ETXEJABEA

"Aita zenaren etxea daukat jabetzan. SAPA lantegiak eraiki zuen 50eko hamarkadan enpresako langileentzako. Hasieran, enpresarena baldin bazen ere, denbora batera, erosteko aukera eskaini zien langileei eta hala eskuratu genuen".

PUNTUA



IVAN CABALLERO

Kuriositatearen beharra

Kuriositatea galbidean doa eta egoera okertzen ari zaio.

Kanpotik ezarritako prefabrikatutako iritzi eta ideia multzoz bete zaizkigu burmuinak. Horri aurre egiteko gaitasun ezak noraezean garamatza, auskalo nora, baina noraezean. Horregatik uste dut kuriositatea lantzea beharrezkoa dela, munduaren aurrean gure txikitasuna onartu eta gauzen izaera edota zergatiagatik harritzea.

Bestalde, edozein eztabaidari hasiera emateko funtsezkoa da erabiliko diren kontzeptuen ezagutza sakona. Nola argudiatu, bestela, alde ala aurka argi ez badaukagu gaien esanahia? Eztabaida batek argudio sendoak behar ditu, ez uste erdi ustelak.

Niri min gozoa eragiten didate nire jokabide eta konbikzioak apurtzen dizkidaten argudioak. Mina, barnean itsatsita nuen arrazoi bat eraisten didalako. Gozoa, aldiz, nire pentsamendua eta ideiak doitzeko aukera berria sortzen delako.

Beraz, ingurua kuriositatez aztertu, argudio propioak eraiki eta antolatu, eztabaidara eraman eta iritiz aldatzeko prest egon gaitzen!



ELIZPE HORTZ KLINIKA



Zure gertuko hortz klinika, puntu-puntu teknologijekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berriak eta analitikari dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
Mug: 747 42 75 19
e-mail: elizpe@d@gmail.com

Ordutegia:
Asteheneretik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

FOGASLER ITURGINTZA



943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Mimar

Ilargipaindegia
Estetika
Solariuma



Gabelluz 4, Aheia Tel: 943 75 13 13 - 942 31 34 04

HNOS. BENITO ANZIBAK
MUEBLES-ALTZARIAK



Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurriera egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

MENDIZABAL okindegia
Ogia - Prentsa - Gosariak



Asteheneretik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

OKTILIA HARATZEA



• Enkarguak hartzen ditugu
Gertuko ganadua
• Etzeko tripa, txistora,
salbitza eta mingaina

Etzuburuta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Soraluze

576 556 817 - 943 75 21 38



TXURITXU GOZOTEGIA

Asteheneretik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30
Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, oga,
prentsa, pasorik,
borbotak...
Ezerra eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

MABEL ILARGIPAINDEGIA



• Laser depilazioa
• Keratina tratamendua
• Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

GOKI
erreformak





FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MAINTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSGARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkT

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Bideak eginez

**JASONE OSORO
ETA ZALOA URAIN
IDAZLEA ETA MUSIKARIA**

Kultura arnasten da Eibarko Coliseo antzokian. Goi-mailako artistak igo dira bertako eszenatokira eta han elkartu ditugu Debabarreneko bi kultur sortzaile handi: Jasone Osoro eta Zaloa Urain. Idazketa eta ahotso erabiliz asko adierazi dute biek, eta oraindik asko dute esateko.

Testua eta argazkiak: Ekhi Belar.

Bideoa: Yanire Sagredo.

Zuentzat zer da emakumea eta kultur sortzailea izatea?

Zaloa Urain: Badirudi bi titulu ezberdin direla, baina azkenean ni neu naiz. Emakumea naiz eta baita sortzailea ere. Ez da bilatu dudan zerbait, horrela etorri zait.

Jasone Osoro: Bai, zerbait berezkoa. Nik ere antzera sentitzen dut neure burua. Emakumea naiz, baina bai sentitu izan dut edo sentiarazi didate etiketa moduko bat dela. Orduan, alde batetik, emakume bezala bai sentitu dut nahi dugun tokira iristeko oztopo gehiago ditugula eta, iristen garenean ere, emakume bezala hartzen gaituztela, ez egiten dugun sormen lanarengatik bakarrik; eta bestetik, sentiarazi didate emakumea naizelako iritsi naizela hainbat tokitara. Kontraesana dirudi. Gorputzaren zama sentitu izan dut. Urte asko egon naiz naizena aldarrikatzen eta orain bakeak egiten ari naiz: Jasone Osoro naiz, harro nago eta hau da nire ibilbidea literaturan.

Z.U.: Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak izate hutsagatik. Adibidez, orain dela gutxi kontzertu bat lotzeko deitu ziguten eta euren arrazoia zen emakume bat nahi zutela eszenatokian. Bai, emakumea naiz, baina ez deitu emakumea naizelako bakarrik.

Nolabait esatearren, kupoa betetzeko?

J.O.: Niri ere gertatu izan zait. Oraindik antolatzen dira ‘Euskal literatura eta emakumeak’ moduko saioak, baina ‘Euskal literatura eta gizonetakoak’ ez da antolatzen, ezta? Lehen liburua aurkeztu nuenean prentsako titular batek ‘Emakumea eta gaztea’ zioen. Badira gauza batzuk gizonetakoek ez dituztenak bizi. Gaur ere hemen gaude ez sortzaileak garelako baka-



“Gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta kontua ze guapa agertzen nintzen izatea. Bale, baina zer esan dut?”

“Barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat”

JASONE OSORO ELGOIBAR, 1971

Informazio Zientzietan lizentziatu ondoren, kazetaritza lanetan eta telebistan jardun zuen hainbat urtetan aurkezle eta gidoilari gisa, egunkari eta aldizkarietan zutabeak idazteaz gain, baina literatura da bere bizitza. ‘Tentazioak’ izan zen bere lehen lana eta harrezkero hainbat eleberrri, saiakera eta biografia idatzi ditu haur, nerabe zein helduentzat, sariak ere eskuratuz.



“Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak garelako”

“25 urte hauetan abeslari bezala hain ikusgai egotea gainean eraman dudan oso zama latza izan da”

ZALOA URAIN EIBAR, 1976

Eibarko Kokein taldeko abeslaria da. Taldeak 25 urte bete ditu aurten eta ‘Bidea Da Helmuga’ disko berriaren argitarapenarekin ospatu dute urteurren berezia. Bere ahotsa euskal musikaren ikurretako bat da eta erreferentea izan da musikan trebatu nahi izan duten askorentzat. Sortzeaz eta abesteaz biziki gozatzen du, eta eszenatoki gainean bizi den magia gustatzen zaio.

rrik, baizik eta emakume sortzaileak garelako, eta gizonezko bati ez liokete esango kulturagintzari buruz berba egin nahi dutenik gizonezkoen ikuspegitik. Hori oraindik ez da gertatu. Beraz, horrek esan nahi du oraindik gure kasua arraroa dela. Zergatik? Urte askotan plaza publikoa gizonezkoena izan delako.

Z.U.: Eta jarraitzen du horrela izaten!

J.O.: Edozer egiten dugula ere epaitu egiten gaituzte emakumeak izate hutsagatik eta ez dakit gizonezkoek hori bizi duten. Gizonei beraien lanarengatik epaitzen zaie, baina ez gizon baten gorputzean jaio direlako.

Z.U.: Musikan egindako ibilbide guztia lau gizonezkoekin partekatu dut eta beraiei eskatu zaiena eta niri eskatu zaidana oso ezberdina izan da beti. Adibidez, itxuraren aldetik. Badirudi guk eder egoteko behar bat-edo dugula eta horrela sentitu izan dut. Kasu askotan ustez laudorioak direnak entzun ditut, “oso polita da” eta horrelakoak, baina horrek zer zerkusi du egiten ari naizen lanarekin? Eta niri esaten badidazu, besteei zergatik ez diezu berdina esaten? Taldekideak aita eta ama izan garen kasuetan ere, gure rolen inguruan antzera gertatu da. Badirudi emakume eta ama izate horretan sortzaile izateari utzi beharko geniokeela amatasuna bizitzeko, baina taldekideen kasuan inoiz ez dut entzun horren inguruan galdetu dietenik.

J.O.: Lehen, itxuraren kontua aipatu duzu eta, nire kasuan, atzean egiten dut lana, bakardadean, ez dut talderik behar eta ez naiz publiko aurrean aritzen, are gutxiago zu bezala, talde bateko abeslaria izanik, baina bai gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta jendeak aipatzea ze guapa agertzen nintzen eta horrelakoak. “Bale, baina zer esan dut?”. Gizon bati hori esango liokete? Agian bai, ez dakit, baina argi dago oso ezberdin ikusten gaituztela, kanpoko begirada oso ezberdina dela.

Z.U.: Telebistan agertzen garenean betiko komentarioa da: Ze guapa zeunden! Inoiz moskeatu egin naiz eta esan didate ea zergatik haserretzen naizen gauza polit bat esateagatik, baina nire eginbeharra ez da hor polita agertzea, nire sorkuntza erakustea baizik, ez neure burua. Egia da nire kasuan oso ikusgai nagoela eta hori 25 urte hauetan gainean eraman dudan oso zama latza izan da.

J.O.: Gainera, irudi fuerte bat proiektatzen duzu, emakumeengan hain ohikoa ez dena. Uste dut, gainera, rol hori nahita hartzen dugula. Publiko aurrean agertzea ez da erraza eta mutilak beharbada horretara ohituago daude, hala hezi dituztelako, baina gu beti hezi gaituzte bigarren plano batean egoteko, periferian. Besteak zaintzeko, ez zaintzeko hainbeste gu. Orduan, bat-batean demaseko indar bat proiekt-

“Helmugak izan ditzakegu, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela”

‘Bidea Da Helmuga’ kaleratu du Kokeinek. Bideaz gozatzea izan duzue helburu?

Uste dut hori izan behar dela helburu finkoa. Helmugak izan ditzakegu eta nora heldu nahi dugun tokira ilusioz begiratzea ondo dago, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela eta horretaz gozatu, landu, mimatu eta batzuetan sufritu behar dugula. Disko berriarekin maiteminduta nago eta toki guztietatik bidearen inguruko gauzak eta hausnarketak iristen ari zaizkidala iruditzen zait (barreak).

ZALOA URAIN

tatzen duzunean, nahiz eta gero errealia ez izan, hori ere epaitu egiten da.

Z.U.: Niretzat zama latza da. Atzera begira, agian bai proiektatu dut pertsona indartsu baten irudia. Hori bai, gero zera esan didate: “Ez zara horrelakoa”. Ez dakit ogro bat naizela uste duten edo. Ez naiz ogro bat, baina indartsua banaiz. Zein puntutara arte izan den autosegurtasuna lortzeko jarrera bat? Ez dakit, baina egia da urte askotan oso gogorra egin zaidala. Nire gogoia atzean agertzea eta inork ez ikustea zen. Abesteaz aparte, nire itxura epaitzen zen, edo nire izaera momenturen batean. Eskerrak urteekin gauzak ikasten diren eta norberak bere buruarekin bakeak egiten dituen. Orain momentuan, zentzu horretan bake pixka bat daukat neure buruarekin eta pixka bat paso egiten dut, baina oraindik ere emakumeok horrelako gauzak entzuten ditugu eta, tamalez, entzungo ditugu.

Belaunaldi berriek horrelako egoerak bizitzen jarraituko dutela uste duzue?

Z.U.: Biok antzeko adineko alabak ditugu, ezta? Nire esperantza da atzetik datozen belaunaldi berriek



beste modu ezberdin batean hartzea hau guztia. Horri begira egoten naiz: alde batetik, euren irudia eta emakume zentzua zaintzeko nahia dago eta, aldi berean, ez edukitzea zamarik edo komentatzen ari garen etiketarik.

J.O.: Gure alabek gurekin alderatuta duten abantaila bat da guk genituenak baino ispilu gehiago dituztela. Arlo ezberdinetako emakumezko erreferenteak dituzte eta hori asko da. Badute non begiratu. Eskubidea eta aukera edukitzeaz gain, gogoia edukitzea beharrezkoa da erreferenteak izatea, hau da, emakume bat ez dakit nora iritsi dela edo zerbait lortu duela ikustea. Gu hasi ginenean, orain dela ia 30 urte, oso gutxi zeuden. Nazioarte mailan tira, baina Euskal Herrian, musikan eta literaturan, zenbat emakume zegoen?

Z.U.: Egon, beharbada batzuk egongo ziren, baina asko eta asko etxean sartuta eta ez oholza gainean. Eta berdin, egongo ziren idatzi bai baina publikatzen ez zutenak ere.

J.O.: Ez naiz oso datu zalea, baina batzuetan tesuingurua ulertzen laguntzen dute. 1982.urte inguru-



ruan, Euskal Idazleen Elkartearen sortu zenean, idazleen %9 bakarrik zen emakumezkoa eta gaur egun %36 inguru da. Oraindik ez gara erdira ere iristen. Egia da 2020tik hona bazkideak diren idazleen %50 emakumezkoak direla. Poliki-poliki aldatzen doan zerbait da. Niretzat garrantzitsua da emakume hauen ahotsak indartsuak direla, zeresana dutela, eta sorkuntza mailan gauza eder eta on asko egiten ari direla. Hori ikaragarriko erreferentzia da orain hazten dauden horientzat.

Z.U.: Lortu dugun gauzarik onena eta indartsuena plazaratzen hastea da. Indartsu sentitzea eta “nirea zergatik ezin da beste honek egiten duena bezain ona izan?” pentsatzea. Etxean hori egin dugun zalantzarik ez dut, baina plazaratzea beste gauza bat da. Horrela, gazteei erreferente bezala pentsarazi ahal izan diegu. Orain dela gutxi Zea Maysekin ‘Elektrizitatea’ abestiaren bertsio berria abesteko aukera izan dut, eta zeinen polita izan den hain adin eta estilo ezberdinetako emakume abeslariarekin elkartzea sentsazio eta energia berdinak sentituz. Hor jarri da agerian musikan gauden emakumeok zenbat

gauza egiten ditugun. Geratzen zaiguna plazaratzea da, baina plazaratu ez bakarrik emakumeak izateagatik, baizik eta egiten dugun lanarengatik.

Inoiz izan duzue kultura arloko ibilbidea amaitzeko gogoia?

Z.U.: Zortez, ez. Taldekideekin oso zorteduna izan naiz beti eta hor babes sentitu dut. Ez da babes behar izan dudalako, baizik eta talde moduan zerbait indartsu sortu dugulako. Espero dut eurek ere nigan babes hori sentitzea. Momenturen batean pentsatu izan dut agian egunen batean ez dudala edukiko hain indartsua edo dena delakoa izateko gogoia, batzuetan igortzen dudana irudia ez baitator bat sentitzen dudanarekin. Agian indartsua eman dezaket, baina batzuetan goxo-goxo egon nahi dut. Momentu horietan sentitu izan dut hau guztia larregi dela niretzat, baina bestela ezetz esango nuke.

J.O.: Musika taldeen kasuan, aipatu duzun babes hori oso garrantzitsua dela uste dut. Konplizeak edukitzea. Lan horretan jarraitzeko gogoia eta energia ematen dizu. Idazle izatea oso ezberdina da. Bakarkako lana da. Orain sare gehiago dago,



sare sozialen bitartez elkar ezagutzeko aukera gehiago dago, baina nire sasoiaren ez zegoen horrelakorik eta nire ibilbidea oso bakartia izan da. Bakardadeak pisatzen du. Pentsa: emakumea, gaztea (orain jada ez naiz hain gaztea), bakardadea eta askotan egurra ematen dizutela sentitzea. Behin baino gehiagotan pentsatu dut idazten jarraitzea, baina niretzat bakarrik. Publikatzea, proiektu bat defendatu beharra eta nolabaiteko irudi bat proiektatu behar izatea... Hori egiteko energia falta izan zait noizbait, nekeza da. Beste alde batetik, barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat eta beste guztia onartu egiten dut, mamu hori tarteka agertu arren.

Zertarako sortzen duzue?

J.O.: Ez dut esango sortzeak sendatu egiten duenik, baina bai uste dut gauza asko ulertzen eta kanpora ateratzen laguntzen duela. Bolada batean ezer sortu gabe egoten banaiz, izaeran eragiten dit. Zitalago nago. Gero, egoera desblokeatzen denean, automatikoki hobeto sentitzen naiz. Beharbada horregatik sortzen dugu, badelako era bat katarsi moduko bat egiteko eta musikaren edo letren bitartez gauzak kanpora ateratzeko.

Z.U.: Niri, adibidez, abestien letrak idazteak asko balio dit barruak askatzeko. Zentzu horretan gauza

bitxia gertatzen zait. Disko berria kaleratu dugu berriki eta abesti batzuk entzun ditudanean orain konturatzen naiz gehiago kantua idatzi nuenean zer pentsatzen ari nintzen. Gauza horiek deskolokatu egiten naute: nola bota nuen hori eta zein puntutara arte ez nintzen kontziente hori botatzen ari nintzela? Orain bertan sortzea ezinbesteko gauza bat da niretzat. Esan duzun bezala, ez badut sortzen, igarri egiten zait.

Nola bizi duzue zuen sorkuntzen hartzaileekin duzuen harremana?

J.O.: Idazleok ez ditugu kontzertuak eskaintzen, baina gure boloak eskoletan egiten ditugun saioak izaten direla esan ohi dut. Saio horietatik demaseko txutearekin irteten naiz, irakurlearen maitasuna jasotzen duzulako nolabait esatearren. Estimaten dute zu bertara joatea, zu ezagutzea, liburutik gustatu zaiena eta gustatu ez zaiena partekatzea... Oso aberasgarria da.

Z.U.: Imajinatzen dut adrenalina puntu bat dagoela hor. Batzuetan zaila izaten da hortik jaistea! Niri gertatu izan zait kontzertu indartsu baten ostean taupadak jaisten saiatzea eta ezin. Gero, biharamun emozionala edukitzen dut. Kontzertuan bota eta sentitu duzun guztiarekin indarra hartzen duzu eta, gero, biharamun hori dator.



J.O.: Ikusle bezala ere, kontzertu indartsu batera joan naizenean oso ohikoa da nik hori sentitu izan badut, musikariek zer sentituko duten pentsatzea. Demaseko txutea imajinatzen dut, baina gero hori kudeatzen jakin behar da.

Z.U.: Sortzea gustatzen zaigu, baina ez guretzat bakarrik, jendeari erakustea ere gustatzen zaigu-eta. Horrek gero prezio bat du: industrian murgiltzea. Ezetz esaten duenak, gezurra dio. Etxean abesten eta jotzen pozik egongo banintz, primeran, baina nik hartu dut egiten dudana azalertzeko erabakia eta jendearengana iristeko gogo horretan prezio batzuk ordaintzen ditut. Hori bai, bueltan demaseko erantzuna jasotzen dut. Horrek guztiak oso bizirik sentiarazten nau. Eguneroko gauzekin aurrera eta atzera gabilta, eta kontzertu batean publikoarekin hartumana sortzen denean oso bizirik sentitzen naiz. Momentuaz gozatzen dut.

Nola kudeatzen duzue sorkuntzaren eta kultur-industriaren eskakizunen arteko oreka hori?

J.O.: Alaba jaio zenetik idaztetik bizitzeko erabakia hartu nuen eta profesionala naiz. Horrek disziplina ekarri dit. Kalitatezko denbora sorkuntzari eskaini ahal diot orain, ez lehen bezala, beste lan bat nuen-eta. Aldaketa ona izan da, baina egia da batzuetan presioa sentitu dudala. Adibidez, ea bi urtean behin,

“Bideari eustea eta irautea garrantzitsua eta arrakastatsua dela uste dut”

‘Arrakasta’ da zure azken lana. Zein da zure ibilbideko arrakastarik handiena?

Oso harro nago eta uste dut arrakastatsua dela bideari eustea, hor irautea eta parte sentitzea. Batzuetan erraza izan daiteke nekatuta zaudela esatea eta beste gauza bat egiten hastea, baina beste alde batetik badago zerbait sorkuntzara lotzen zaituena eta pozik nago neure buruari erakutsi diodalako gai naizela. Hori garrantzitsua eta arrakastatsua da niretzat.

JASONE OSORO



gutxienez, liburu bat ateratzen dudan, nahiz eta liburu salmentaz bakarrik ez bizi eta beste gauza batzuk egin izan. Dena dela, horrela martxan zaude, eta irudimenak eta sormenak akzioa behar dute. Hori ere entrenatu egiten da eta, zenbat eta gehiago sortu, orduan eta aktiboago zaude. Sorkuntzak kalitatezko denbora eta lana behar du. Toki batera edo bestera iristearen edo ez iristearen arteko aldea. Horra iristeko egiten den lana izaten da. Lanik egin gabe, ez da ezer lortzen.

Z.U.: Nik ez dut horrenbesteko zortetik, ez naiz musikari izatetik bizi. Nahiko nuke, baina ez, beste lan bat daukat eta gustura egiten dut gainera. Sarritan komentatu dut hori taldekideekin, lagunekin eta musikaz bizi diren batzuekin. Batzuetan bai sentitu izan dut bigarren mailako musikaria naizela. Azkenean, denbora gehiena beste lan bati eskaintzen diot eta bizitzeko behar dudan dirua ez da musikatik iristen. Hori bai, musikaz bizi direnek beti esan didate hori burutik kentzeko. Dena dela, bere alde onak ere baditu. Esan duzun bezala, inspirazioa ez da bat-batean etortzen. Gogoratzen dut pandemian Miren Narbaiza musikari eta lagunak esaten zidala sasoi aproposa zela bakarkako diskoa ateratzeko, baina nik esaten nion justu orduan, egoera horretan, ez zitzaidala iriteten. Gauza beltz baino beltzagoak iriteten zitzaizkidan bakarrik. Banuen denbora, baina presio horrek

ez zidan lagatzen. Presioa berez ez da txarra, martxan eta aktibo jarri ahal dizu, baina nire kasuan, musikaz bizi ez naizenez, ez dut presio hori sentitzen. Beraz, Kokeinekin egiten duguna horrela sentitzen dugula egiten dugu.

J.O.: Izaera kontua ere bada. Inoiz ez nuke esango sorkuntzatik bizi den norbait hortik bizi ez den beste bat baino idazleago edo musikariago denik. Are gehiago, batzuek sorkuntza erromantizatuta dute eta pentsatu izan dut batzuentzat sorkuntzatik bizitzea kalterako zela. Dirua tartean sartzen baldin bada, kalterako izango balitz bezala. Bakoitzak ahal eta nahi duena egiten du, eta dena dago ondo.

Laburrean

Liburu bat?

J.O.: 'Termita', Garazi Albizuarena.

Z.U.: Anariren 'Gari eta goroldiozko' dut irakurtzeko.

Disko bat?

J.O.: 'Ilunpean jai duzu', Txoteko Ezpata.

Z.U.: Nirea, ezin dut besterik esan orain.

Zer eskatu diozue Mari Domingiri?

J.O.: Inspirazioa.


Z.U.: Sorpresa.



Premiaren eta eskaintzaren arteko oreka bila

Herriko etxebizitza premia eta eskaria asetzeari begira, datozen hilabeteotan hainbat egitasmo abiatuko dira herrian. Batetik, Jaurlaritzak eta Udalak sinatu berri dute hirtzarmena bultzada emateko Alokabide programari, lagundu dezan etxe hutsak merkaturatzen. Bestetik, urtea hastearekin batera, lanean hasiko da etxebizitza dinamizatzailea etxejabeekin. Gainera, Aztikerrek Soraluzeko etxebizitza-datuak jaso ditu txosten batean.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi**.



Miguel de los Toyos sailburuordea, Unai Larreategi alkatea eta Patricia Borinaga zinegotzi sozialista sinadura ekitaldian.

Soraluzeko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu berri dute etxebizitzekin lotutako hitzarmena. Abenduaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko sailburuorde eta Alokabideko lehendakariorde Miguel de los Toyosek eta Unai Larreategi alkateak hitzarmena sinatu zuen udaletxeko batzar aretoan, Patricia Borinaga zinegotzi sozialista ere ondoan zutela.

De los Toyos sailburuordeak esplikaturakoaren arabera, sinatutako hitzarmenaren

bitartez, "kolaborazio markoa" sortu nahi dute Soraluzeko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean herrian Bizigune programa "modu koordinatuan" bultzatzeko. Haren bitartez, Soraluzen alokairuzko erregimenean merkaturatzeko moduan dauden ahalik eta etxe gehien merkaturatu nahi dituzte, Bizigunek ematen dituen bermeak baliatuta (ikus beheko taulan).

Ezozibideko obrak "erritmo onean"

Egun berean, beste sailburuorde bat ere izan zen Soraluzen, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendako sailburuorde Juan Carlos Abascal, Ezozibideko lanak bisitatzen. Soraluzeko Udaleko eta Debegesako ordezkariak lagunduta, hiru erakundeetako ordezkariak Ezozibidea Berritzen proiektuko obrak gainbegiratu zituzten. Izan ere auzoko etxebizitzak zein auzoa biziberritzeko

Alokabide-Biziguneren bermeak

- 1.** Hutsik dagoen etxebizitza alokatzeko kudeaketa integrala.
- 2.** 6 urteko alokairuaren eta hileroko kobrantzaren bermea.
- 3.** Txosten teknikoa Alokabideren kontura. Etxebizitzaren egoera eta bertan hobekuntzaren bat egin behar den ala ez zehaztuko da. Era berean, bermearen mende dauden instalazioen eta altzarien elementuak zehaztuko dira.
- 4.** Efizientzia energia-ziurtagiria lortzea.

- 5.** Etxebizitza egokitzen eta doitzen laguntzea.
- 6.** Interesik gabeko aurrerakina etxebizitzan egin beharreko egokitzapen-lanetarako. Aurrerakina errentatik deskontatuko da.
- 7.** Etxebizitza mantentzea eta kontserbatzea. Alokabide arduratuko da etxebizitzaren mantenua eta kontserbazioa kudeatzeko.
- 8.** Etxeko arrisku anitzeko aseguruaren kontratatzea Alokabideren kontura.

9. Etxebizitza entregatzen den kontserbazio-egoera berean itzultzeko bermea.

10. Beste zerbitzu eta abantaila batzuk.

- Alokabideko ordainduko du zaborren eta estolderiaren gaineko zerga.
- Udal bakoitzaren mende egonda, OHZ % 50eraino murriztu eta beste onura fiskal batzuk lortu ahal izango dira.
- Alokabideko berme juridikoak eskaintzen ditu, behar izanez gero.

obrak aurtengo apirilean hasi zituzten eta joan den asteko bisitan esan zutenez, "erritmo onean" doaz.

Ezozibideko obrak: igogailuak...

Ezozibideko lanek, bost ataritan banatuta dauden 72 etxebizitzari eragiten diete eta honako jarduerak egiten ari dira bertan: irisgarritasuna hobetzeko igogailuak instalatu eta atariak egokitu; eraikinen fatxada babestu, airezpen sistemak zein isolamendu termikoarenak ezarri energia-efizientzia areagotzeko. Ildo beretik, berokuntza-sistemak aldatzen ari dira, energia berriztaezinaren kontsumoa % 60 murrizteko - besteak beste, gaur egungo galdarak efizientzia handiagoko galdara berriengatik ordezkatur.

4,75 milioi euroko inbertsioa egingo dute obra horietan.

Ezozibidea berritu

Horrekin batera, auzoa berrurbanizatu egingo dute, kaleko irisgarritasuna hobetzeko, permeabilitate arazoak konpontzeko eta bidea berriro asfaltatzeko. Horretarako 883.000 eurotako inbertsioa egingo dute Ezozibideko biribilgunetik Ezozibidea 34. zenbaki arteko eremua zaharberritzeko. Obra horiek urtarrilean hasiko dira.

Alokabiderek hitzarmena alderdi guztien adostasunarekin

Bi sailburuordeen bisitak Soraluzen aurretik abian dauden eta gizartearen arazo nagusietako bat bilakatu den etxebizitzaren problematikari aurre egin nahi dioten egitasmoen testuinguruan datoz.

Alokabideri dagokionez, uztaileko osoko bilkuran alderdi guztien adostasunarekin onartu zen hitzarmena sinatzea, eta, orain gauzatu da. Dena den, Soraluzeko Udalak 2015etik dihardu Bizigune-Alokabide programari atxikita eta hura baliatzen herriko etxebizitza hutsak merkaturatzeko ahaleginean.

Orain, sinatu duten hitzarmenarekin gaiari beste bultzada bat emateko ahalegina egitez gain, Soraluzeko Udala zuzeneko bidelagun izango da etxebizitzaren problematikari aurre egiteko bide horretan, horretarako bi erreminta berri ahalbidetuz: etxebizitza dinamizatzailea eta diagnostikoa.

Etxebizitza dinamizatzailea

Unai Larreategi alkateak esplikatu zuenez, Udalak etxebizitza dinamizatzaile bat kontratatu du hiru hilabeterako -2025eko urtarrila, otsaila eta martxoa- eta besteak beste, hark egingo ditu bitartekari lanak etxebizitza alokairuan jarri nahi duten jabeen eta Alokabideren artean. Teknikari hori KLB8an egongo da, Gertutasun



Eusko Jaurlaritzako, Soraluzeko Udaleko eta Debegesako ordezkariak Ezozibideko obrak bisitatzen, joan den astean.



**"BIZIGUNE
BULTZATZEKO
KOLABORAZIO MARKOA
SORTU NAHI DUGU
ERAKUNDEEN ARTEAN"**

**"JABEEI IKUSARAZI
NAHI DIEGU LASAI
MERKATURATU
DITZAKETELA ETXEAK"**

MIGUEL DE LOS TOYOS, JAURLARITZAKO
ETXEBIZITZA SAILBURUORDEA

Aldaketa beharraren arrazoi garrantzitsuenak



ITURRIA: AZTIKER

Bulegoan, eta helburua da herritarrei informazio guztia zein aholkularitza eskaintzea Alokabiden parte hartu ahal izateko.

Halaber, KLB8ko lokalean segituko dute, Ezozibidea Berritzen proiektuarekin etorri ziren Debege-sako adituek ere. Haiei ere kontsulta dakizkieke etxebizitzetako obrak egiteko eskuragarri dauden laguntzak eta eraberritze-lagunduketen ingurukoak.

Egoeraren diagnostikoa

Bestetik, Soraluzeko Udalaren enkarguz, Aztiker Soziologia Ikerguneak etxebizitzaren inguruko ikerketa egin du aurten, *Etxebizitzaren inguruko*

ikerketa Soralzuen: etxebizitza parkea, herrian dagoen eskaintza eta herritarren beharren azterketa, 2024.

Udalaren helburua da ikerketa honen bitartez soraluzetarren gaur egungo errealitatea ezagutzea eta etxebizitzaren inguruan dituzten beharrak eta kezak detektatzea. Hain justu, ikerketa horretan azaleratutako datuak izango dituzte oinarri urtarrietik aurrera etxebizitzaren gainean egingo den lanketarako, eta baita etorkizunean etxebizitza politikak erabakitzeke ere.

183 etxebizitza behar dira

Aztikerren ikerketak eman dituen zenbakien arabera, 2024an, Soraluzek 3.820 bizilagun izan ditu eta guztira 1.982 etxebizitza daude. Horietatik %79,9 okupatuta eta %9,5 -189- hutsik.

Beharrei edo eskariari dagokionez, berriz, Soraluzen 183 etxebizitza beharko lirateke herrian detektatutako premia asetzeko. Etxebizitza horietatik 138 izango lirateke etxebizitzaz aldatzeko beharra adierazi duten herriko familien %7,7aren beharrak asetzeko eta beste 50 etxebizitza 35 urtez azpiko gazteek gurasoen etxetik emantzipatzeko adierazi duten beharrari erantzuteko.

Etxebizitza beharra dutenen artean, %43ak nahiko luke erostea, beste %43ak errentan hartu eta gainerako %14ari berdin zaio.

Beraz, ikerketaren arabera, etxebizitza eskari handiena etxetz aldatzeko beharretik dator.

Igogailu falta eta hezetasuna arazo

Etxebizitzaz aldatzeko beharraren atzean, berriz, hainbat arrazoi bistaratu ditu Aztikerren txostenak -goiko taulan-.

Lehena da etxebizitzara iristeko irisgarritasun falta eta bigarrena, hezetasun arazoak.



"HERRITARREN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA DA"

"HELBURUA DA AUZO IRISGARRIAGOA ETA JASANGARRIAGOA IZATEA"

JUAN CARLOS ABASCAL, LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDA KO SAILBURUORDEA

Datuei erreparatuta, etxebizitza erosi edo alokatu nahi dutenen %41,7ak ezinbesteko ikusten du igogailua izatea, %29,2ak balkoia izatea eta %12,5ak merkea izatea.

Gazteen beharrak

Bestalde, beste 50 etxebizitza beharko lirateke emantzipatzea nahi duten gazteendako. Aztikerrek egindako inkestaren arabera, orain eskaintzen diren etxebizitzaren ezaugarriek ez dituzte gazteen beharrak asebetetzen.

Datuen arabera, etxetik joan ez diren gazteen %37,5ak uste du alokairuen prezioak altuegiak direla, eskaintza baxuegia -%6,3k- eta alokairuko etxeak egoera txarrean daudela -%6,3. Zifra berberak ateratzen dira etxea erosi nahiko luketen gazteen kasuan ere.

Azken bi puntuek erakusten dutenari jarraituz -igogailu falta eta erreforma beharra- Aztikerren txostenak ondorioztatu du "garrantzitsua" litzatekeela jada eraikita dauden etxeak "birgaitzeko politikak" garatzea.

Etxebizitza parke zaharkitua

Izan ere, egoera orokorrari begiratuta, Soraluzeko etxebizitza-parkea oso zaharkituta dago.

19 urte dira herrian azken etxebizitzak eraiki zituztela, babes ofizialekoak izan ziren Etxaburueta kalean eta bi urte lehenago Albesakoak. Beraz, azken bi hamarkadetan herrian ez da etxe berririk eraiki, eta, txostenak ez duen arren etxebizitza berrien eskariaren gaineko daturik jasotzen, jakina da zenbait herritarrek -gazteek, batik bat- beste herri batera joatea aukeratu dutela, hainbatetan etxebizitza berria eskuratzearren.

Bigarren eskuko etxe gutxi


Bigarren eskuko etxebizitza erostea ez da askoz ere errazagoa. Merkatuko etxe-agentzia handien arabera -Idealista da erabiliena- Soraluzen 42 etxebizitza daude bakarrik salgai une honetan. Eta Aztikerren ikerketaren datuen arabera, horietatik %63ak ez du igogailurik eta gutxienez, bostetik batek erreforma sakona behar du bizitzera sartzeko.

Bestalde, alokairuaren egoera are okerragoa da udalerrian. Etxeak eskaintzen dituzten Interneteko agentzietan, adibidez, ez dago Soraluzen etxebizitzarik alokatzeko aukerarik eta momentu honetan Mapfre inmobiliariak ere ez du alokairurako etxe bakar bat ere.

Batez beste, 109.000 euro

Salmenta prezioei dagokienez, azken boladan, hainbat iturrik adierazi dute Soraluzekoak direla EAEko etxerik merkeenetakoak.

Salgai dauden etxebizitzaren prezioa (bigarren eskukoak)



ITURRIA: AZTIKER

19 URTE
BABES OFIZIALEKO
AZKEN ETXEAK DUELA
19 URTE ERAIKI ZIREN

42 SALGAI
42 ETXEBIZITZA
BAKARRIK DAUDE
SALGAI



Etxebizitza zahar asko ibaiaren ertzetan daude.

Datu hori baieztatzen du Aztikerren ikerketak: Soraluzean, metro karratua ordaintzen da 1.187 euro eta Gipuzkoan, batez beste, 3.500 eurotik gora. Sakontxeago aztertuz gero, arrazoiak azalerazen dira, izan ere, Soraluzeko metro karratuaren prezioa bigarren eskuko etxeen arabera da eta askok ez dute igogailurik.

Aztikerren arabera, Soraluzeko etxebizitzaren batez besteko prezioa da 109.200 euro.

Etxebizitzaren hamarretik seik 100.000 euro baino gutxiago balio dute baina ia guztiak dira igogailu eta garajerik ez dutenak.

150.000tik gorakoak, berriz, %12,5 dira eta horiek dira etxebizitza nahiko berriak edo baserri handiak.

Alokairuari dagokionez, berriz, merkatu ofizialean ez dagoenez alokairurako eskaintzarik, alokairuen prezioen berri ez du jaso Aztikerren ikerketak. Edozelan ere, ahoz ahokoari kasu eginez gero, herrian 300-600 euro artean ordaindu behar da etxe bat alokatzeko.

Eskari handia alokairurako

Alokairuarekin segituz, horren eskaera handitu egin da azken urteotan, batik bat, kanpotik etorritako bizilagunen partetik.

Oro har, azken 20 urteotan, hazi egin da Euskal Herritik kanpo jaiotako herritarren

kopurua, %26tik %31,5era. Horien artetik, 2004an, %21,8 ziren Espainiako Estatutik etorri zirenak. Gaur egungo datuen arabera, berriz, Estatutik etorritakoek osatzen dute herritarren %14,3 eta Estatutik kanpo jaiotako bizilagunek, berriz, %17,2 -azken horien kasuan, Gipuzkoako batez bestekoa da %12,2-.

Estatutik kanpoko herrialdeetatik etorritako bizilagun horien %74 alokairuan bizi da. Bigarren alokairu-erabiltzaile handienak, berriz, 45 urtetik beherakoak dira, horien artetik herena bizi da alokairuan.

Eskaintza eskasia eta egoera

Azterketak erakusten du etxebizitzaren eskaintza eskasia, haien egoera zein prezioa eragozpen direla herrian dauden beharrak asetzeko.

Eskariari dagokionez, txostenak bistaraten du, batik bat, etxebizitza alokairuan nahi dutenen eta ekonomikoki profil zaugarria dutenen -gazteak, langabeak, etorkinak...- premiak direla ase gabe gelditzen direnak eta udalerriko etxebizitza parkeak birgaitzeko beharra duela, bereziki, irisgarritasuni eta hezetasun eta isolamendu beharrei dagokienez.

Azkenik, txostenak dio garrantzitsua litzatekeela etxebizitza parkea handitzeko dagoena birgaitzea, hori lagunduko duten politiken bitartez eta horrek lagun lezakeela udalerraren garapen eta birgaitze urbanistikoa bideratzen, besteak beste, soraluzetarrak herrian bertan bizitzen jarraitzeko aukera egin dezaten.

"Lanketa egingo dugu merkatuan ez dauden etxeen jabeekin"

UNAI LARREATEGI ALKATEA

Aztikerrek Udalaren eskariz egindako ikerketaren arabera, Soraluzeko etxe eskaintzak ez du asetzen dagoen eskaria. Arazoaren aurrean, etxeak eraikitzeko proiektuekin batera, Udalak merkatuan ez dauden etxeen jabeak programa publikoetara erakartzeko ahalegina egingo duela aipatu du Unai Larreategi alkateak. **Udalak zer egin dezake etxe premia asetzen laguntzeko?**

Batetik eraikin berriak daude. Martxan dago Pascual Churrucako 29 etxebizitzaren proiektua. Bestetik Olaldeko proiektua dago. Gai horrekin Udalean debatea dugu. Bere garaian, publikoaren karga kendu egin zitzaion proiektuari, promotore pribatuak animatu zitezten eraikitzera. Baina orain, Debabarreneko Ponentziari lotuta, ixtear dago Olaldean eraldaketa bultzatuko duen dirulaguntza esanguratsua. Hor, batetik erosteko etxebizitza libreak planteatzen dira eta bestetik, apartamentu dotazionalak, edadetuen irisgarritasun beharrei erantzuteko. Azken horretarako beharra ere ikusten da. Hirugarrenik, diagnostikoa egin da lehendik dauden etxeak mobilizatzen ahalegintzeko. Haren ondorioekin, datuekin eta merkatura aterata ez dauden etxeekin banakako lana egiten ahaleginduko gara



ikusteko zeintzuk izan daitezkeen bizigarriak. Haien jabeekin lanketa egingo da, eskuragarri ipintzeko Alokabideren programak (Bizigune...). Horretarako, Gertuko Bulegoa ipiniko dugu KLB8an.

Udallerri askok dihardute eremu tentsionatuak izendatzen etxeen prezioak mugatzeko. Halakorik egingo da Soraluzen?

Soraluze sartuta dago eremu tentsionatuan, alokairuarengatik. Izan ere, bost urteotan, batez beste, alokairuaren prezioa %18,3 hazi da, 414,9 eurotik 490,9

"IXTEAR DA OLALDEA ERALDATZEKO DIRULAGUNTZA ESANGURATSUA"

eurora. Aurten sartu dute Soraluze eremu horretan, baina izendapena Udalak eskatu behar du. Hori debatitzen dihardugu Udalean. Etxejabeak sartuko bagenitu parke publikoaren barruan, horrek erregulatu egingo luke alokairua eta gainera, jabeari segurtasuna emango genioke. Zeren eta merkatu librean gehiago kobratzeko aukera dagoen arren, posible da, baita ere, ez kobratzea.

Zenbait iturriren arabera, Soraluzeko etxeak dira EAeko merkeenak. Hori zelan interpretatzen duzu?

Arrazoi desberdinak daude. Gipuzkoan desoreka gertatzen ari da. Gune batzuetan etxebizitzaren prezioa izugarri ari da igotzen, batez ere, kostaldean eta hiriburuen bueltan, eta beste batzuetan, berriz, prezioa mantendu edo apenas igo da. Azken multzo horretan gaude gu. Gainera, azken urteetan herrian ez denez etxebizitzarik eraiki, prezioak ez dira igo. Gipuzkoan etxe berriak modu orekatuagoan eraikiko balira, akaso Soraluzekoak ez liriteke izango merkeenak. Hori zaindu ezean, lurraldea sozialki eraldatu egingo da: gune batzuek jendea erakarriko dute eta beste batzuek jendea kanporatu egingo dute. Adibidez, Donostia inguruan problematika handia dago bertako jende askok ezin duelako bizilekurik eskuratu eta beste jende bat dator, etxe horiek eskuratu ditzakeena. Soraluzeko prezio merkeetan ere, batzuek espekulaziorako aukera ikusi dute.

Bueltan da San Silvestre

URTEA AGURTZEKO LASTERKETA EGINGO DA 31N

TESTUA: ANDER GOMEZ

ARGAZKIAK: PIL-PILEAN, KAMUS

Azkenekoz 2019an ospatu zen San Silvestre lasterketa, *Soraluze, Mugituz!* ekimeneko kideek antolatuta. Gerora, pandemiaren garaian, bertan behera geratu zen. Inguruko herrietan urte bakarreko —edo asko jota bi urteko— etenaldia egin eta martxan jarri zuten berriz, Eibarren eta Bergaran kasu. Plazentzian patxada apur bat gehiagorekin hartu da kontua, baina bueltan da jada eta hitzordua betiko egunean markatuta dago: abenduaren 31n.

Herritarrek berreskuratua

Aurten, santuaren izena osteraren entzuten hasi zen herritarren artean: "polita izango zela lasterketa berreskuratzea, herriarentzako ona izango zela..." eta sei lagun elkartu ziren 2024an San Silvestrea egiteko aukera aztertzeko. Udalarekin bileratxo egin zuten eta, *luz verde* jaso ostean, martxan jarri ziren. Aste honetan izan dute azken bilera, planifikazio- eta prestaketa-lanei azken ukituak emateko eta, kontatu dutenez, "eguna ailegatzeko irrikitan" daude.

"Guztiok bat eginda" korrika egiteko lasterketa

Aurretik egiten zen krosa ez bezala, ez da proba lehiakorra izango: Itzuliak —azkena ez ezik— neutralizatuak izango

dira "helburua herritar guztiak batera joatea izango delako, denentzako eramangarri den erritmo batean".

Hala ere, azken buelta libre utziko dute, bakoitzak nahi duen erritmoa egin dezan. "Lehiakorrenen korrika bizian amaitzeko aukera izango dute eta ordurako nekatuta daudenek, oinezean, lasai asko".

Inskripzio barik

Lasterketa ez-lehiakorra izanik, ez da dortsalik banatuko, ezta kronometratuko ere. Parte-hartzea doakoa da eta ez da izen-ematerik egingo: "Nahikoa izango da egunean bertan abiapuntuan agertzearekin".

Santa Anatik ekingo diote

Aurtengoan, irteera Santa Ana kalean ipintzea erabaki dute: "Toki aproposa iruditu zaigu, horrela, bertan dauden komertzioen aurretik ere pasatzen garelako, mesede egingo dielakoan; bestetik, eguraldi txarra egitekotan arkupe ederra daukagulako ez bustitzeko".

Txurixu parean jarriko dute irteera marra eta 11:00etan ekingo diote lasterketari.

"KORRIKALARIEK TXOKOLATEA, SALDA ETA TXORIZOA IZANGO DUTE SARI HELMUGAN"

Bost buelta, lau kilometro

Santa Anatik udaletxerainoko metroak egin ostean, ibilbide berberari 5 buelta emango zaizkio. Honakoa izango da: Udaletxetik Gabolatseko zubira joan, kiroldegi aurretik pasa eta zubi nagusira heldu, berriz ere udaletxetik Gabolatserako bidea hartzeko. Bost buelta hauetan egindako distantzia 4 kilometrokoa izango da guztira.

Helmuga eguraldiaren arabera

Eguraldi ona eginez gero Plaza Berrian amaituko da; eta txarra suertatzekotan, Plaza Zaharreko karpan. Baina kontatu dutenez, "toki batean edo bestean egin, bukaeran korrikalari guztientzako txokolatea, salda eta txorizoa egongo da berdin-berdin".

Mozorrotzeko deia

Herritar guztiak "haur, gazte zein nagusi" gonbidatu dituzte parte-hartzera eta, "ahal dela, mozorrotuta etortzera". Edizio hau "ondo" ateratzen bada, hurrengorako "sorpresa bereziak" prestatuko dituztela iragarri dute, "esaterako, saria mozorro dibertigarrienari". Aurten ez da halakorik egongo, "benetako saria helmugako jan-edana izango da", diote antolatzaileek barrez; baina, nork daki, agian txokolate apur bat gehiago edo txorizo zati handixeagoa jasoko dute mozorrotuta joaten direnek... Beraz, badaezpada, animatu!



2019an egin zen azken edizioko irteera, Zubi Nagusitik.



Lasterketa hasi aurretiko talde argazkia 2008an.



Korrikalari gaztetxoek globoak eskutan 2011n. KAMUS



Korrika, bizikletan eta turuta ahoan 2013an.



Neska kuadrilla elur-orein adarrekin mozarrotuta 2018an.

Oholtzara Oskarbirekin

URTARRILAREN 4AN, KONTZERTUA ESKAINIKO DUTE KIROLDEGIAN



Abesbatzako eta Oskarbiko kideak udaleko ordezkarekin batera elkartu ziren martitzenean, kontzertua iragartzeko.

TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ UNAMUNO

Ezoziko Ama abesbatzak eta Oskarbi Taldeak kontzertua eskainiko dute urtarrilaren 4an, zapatuan, 19:30ean, Arane Kiroldegiko frontoian. Antolakuntza taldeko kideen esanetan, emanaldi berezia izango da, 51 urteren ostean, Oskarbi Soralezera bueltatuko delako.

Abel Olaizola abesbatzako kideak azaldu duenez, Oskarbi taldeak proposatu zion abesbatzari elkarrekin kontzertua antolatzea eta Ezoziko Ama abesbatzako kideek gogo onez onartu zuten proposamena. Duela aste batzuk ekin zioten kontzertua prestatzeari eta martitzenean entsegu orokorra egin ostean, dena prest dute urtarrilean elkarrekin taularatzeko. Emanaldirako sarrerak

dagoeneko salgai daude, 7 eurotan, Iratxo goxodendan eta Bibe.me webgunean.

Kanta berriak eta tradiziozkoak
Joxelux Treku Oskarbi Taldeko kideak aurreratu duenez, emanaldiak ordu eta erdi



**"EZ DOK AMAIRU"-TIK
AKTIBO JARRAITZEN
DUGUN AZKENEKOAK
GARA"**

JOXELUX TREKU, OSKARBI TALDEKO KIDEA

inguruko iraupena izango du eta hiru zatitan banatuko da: "Lehenengo zatian Ezoziko Ama abesbatzak kantatuko du, ostean, Oskarbi Taldeak eta azkenik, biok elkarrekin".

Errepertorioari dagokionez, lehenengo zatian, Ezoziko Ama abesbatzak bost kanta kantatuko ditu: Bring Me Little Water, Sylvi, This Little Light of Mine, Zeruan Eder Ilargia, Txoria Txori eta La Llamada. Bigarren zatian, berriz, Oskarbi euskarazko kanta berriak eta tradiziozkoak kantatuko ditu. Joxelux Treku Oskarbiko kideak azaldu duenez, taldeak bere hamahirugarren diskoa prestatzen dihardu eta emanaldian "oraindik kaleratu gabeko hainbat kantu berri" eta "betiko kanta ezagun batzuk" uztartuz: Trinitadeak, Guek ajutu ez dugu, Oi Pello Pello,

Kattalin, Tiriki Tauki, Globo gorri eta Mendira naiz. Amaitzeko, biek elkarrekin hiru kanta interpretatuko dituzte: Soin berriko koplak, Mariñela eta Esperantzari Leiho Bat.

'Ez dok amairu'-ko gazteenak

Oskarbi Taldeak ibilbide luzea eta oparoa egin du euskal kantagintzaren barruan. 1966an sortu zutenetik, 58 urtean, ia 600 emanaldi eskaini ditu Euskal Herri osoan. Gainera, bere garaian, taldea 'Ez dok Amairu' mugimendu kulturalako partaide izan zen. "Hasi ginenean, euskal kantagintza berriaren mugimendu hartako gazteenak ginen eta orain, berriz, Benito Lertxundik bere ibilbidea amaitutzat eman eta gero, mugimendu hartatik aktiboan jarraitzen dugun azkenekoak gara", azpimarratu du Joxelux Trekuk, sorreratik taldeko kide denak. Bera bezala sorreratik taldean dihardutenak dira Iñaki Maritxalar eta Maite Aizkorreta, eta hirurek parte hartuko dute Soraluzeko emanaldian, Manex Iñigo Ibabe eta Maite Aldaregia taldekideekin batera.

EZOZIKO AMAK ETA OSKARBI TALDEAK HIRU KANTA INTERPRETATUKO DITUZTE ELKARREKIN

Duela 51 urte Soraluze zineman

1973ko azaroaren 24an, gaueko 22:00etan, Oskarbi Taldeak "kantaldia" eskaini zuen eliza ondoko zineman, Soraluzeko Gaztediak antolatuta, Soraluzeko Ametsa ikastolaren alde. "Garai hartan, ohitura zen, kantaldietan talde eta kantariak multzoan programatzea. Hortaz, kontzertu hau izan daiteke Oskarbi bakarka eskaini zuen lehenengoetakoa, lehena ez bada", azaldu du Joxelux Trekuk.



Oskarbi Taldea 1967ko emanaldi batean. WIKIPEDIA



Alberto Ramírez, alabari eskainitako margolanaren aurrean (*Hiru larrosa Itsarontzat*, 2004). ANDER GOMEZ

Atzera begiratzetik infinitua marraztera

ALBERTO RAMIREZEN OBRAK: ABENDUAN BERGARAN, URTARRILEAN SORALUZEN

TESTUA: ANDER GOMEZ

ARGAZKIAK: CAMILO LOPEZ, VANESA OROZCO ETA ANDER GOMEZ.

Abenduaren 5etik, Alberto Ramirezen obraren 30-40 urteko errepasoa egiten duen *Atzera begirada bat* erakusketa dago ikusgai Bergarako Aroztegi aretoan eta asteburu honetan bukatuko da. Datorren urtarrilean, galeristak eta artistak bat egingo dute aurrenekoz Oreka Art galerian eta bilduma berri bat aurkeztuko du: *Lerro infinituak*.

Atzera begirada bat

Alberto Ramírez Sánchez (Paradas-Sevilla, 1960) herritarren ahotan dago azkenaldian bereziki galerista bezala egiten ari den lanagatik: Bertako zein estatu mailako artista sonatuenak herrira ekartzea lortu du; erakusketa

aurkeztu berri duen Biderbost artista bilbotarrak oraintsu adierazi bezala, "Plazentzia 'artearen mapan' jarriz". Baina galerista bakoitzaren atzean artista bat egon ohi da, eta Ramirezek garbi utzi du hori Bergaran aurkeztutako atzerabegirako erakusketan.

Denetarik aurkitu daiteke bere obran: ohiko olio-pinturak mihisean, noski, baina baita collage-ak eta brontzez zein txatarraz eginiko eskulturak ere. Azken finean, bere obra "XX. mendeko arte garaikideari gainbegiratu bat ematea bezala" dela dio, garaiko artistek eta euren obrek inspiratutakoaren isla.

Erreferenteak 'orbitzen' beti

Adibide garbiena bilduma berrienetakoan dauka, *Zirkuluaren konposizioan*. 2016tik 2024ra bitartean egindako

forma biribileko egurrezko piezak dira, pintura akrilikoz margotuak. Bakoitza artista edo estilo baten oinarrituta dago (Basterretxean, arte errusiarrean, konstruktibismoan, bauhaus-ean...). "Euren koloreek edota filosofiak inspiratzen naute eta, erreferente bezala hartuta, nire terrenora eramaten ditut".

Zaborra arte bihurtzen

Hainbeste estilo probatu ostean, bere egiteko era kutunetako collage-aren munduan topatu du, zaborra birziklatu eta artelanei erliebea ematen. Kaxak, komuneko paperaren kartoiak... edozer erabiltzen du: "Besteek botatzen dutenari balioa ateratzen saiatzen naiz". Berdin eskulturekin, "asko eta asko 'txatarra hutsa' dira, fabriketatik jasotako hondakinak".



Zirkuluen konposizioa. CAMILO LOPEZ



Lerro infinituak bildumako obra. VANESA OROZCO

Ofizioa eta pasioa uztartuz

Eskulturak egiterako orduan, bere lehengaia argizaria dela dio, baina "ez edonolakoa", bere ofizioa (hortz protesiak) eta pasioa (arte plastikoa) uztartuta lortutakoa baizik: "Artean erabiltzen den argizaria oso zurruna denez, egunerokoa hortzen protesiak egiteko erabiltzen dudanarekin nahasten dut, bigun-biguna eta guztiz moldagarria den materiala lortuz".

Erreplika ezineko eskulturak

Brontzera pasatu nahi izanez gero, Madrilerara bidaltzen ditu moldeak. Pieza txikiak kasuan, ordea, berak egiten ditu "Soraluzen bertan, zirrindolak estanpatzeko fabrika bateko hondakinak jasota". Nolanahi ere, eskultura denetan helburu garbi bat dauka: "erreplikaezinak izatea". Horretarako, hiru puntu zaintzen ditu: tamaina txikia izatea, forma finak eta hutsune asko. "Agian gaur egungo teknologia aurreratuarekin 3Dn eskaneatuta posible litzateke; baina bestela, nik egunero moldeekin lan egiten


dudala... ezinezko ikusten dut".

De Pedro eta Azkargortaren esku-hartzea

Bingen de Pedro eta Ricardo Azkargorta –biak Orekan izandako artista bergararrak– izan dira obren aukeraketa eta muntaia egitearen arduradun. Ramirezek dio lan hori egitekotan "paretak hutsune zuri barik" utziko zituela. "100 obratik gora ekarri nuen, 30 bat etxera bueltan eraman behar izan nituen eta 15-20 artean hemengo biltegian (Bergarako aretoan) daude gordeta". Txantxak alde batera utzita, "aukeraketa-lan ona" egin dutela uste du eta gerturatzen diren herritarrek "sortze-data eta estiloen arteko oreka bat izango dutela erakusketak markaturiko ibilbidean zehar, bere 'lerro infinituen' azken obretan bukatuz".

2025ean bere galeriako protagonista aurrenekoz

Azken obra horiek, urtarrilean Soraluzen aurkeztuko duen *Lerro infinituak* erakusketaren mostratxoa dira. Bilduma osoa



Suzko dama eskultura brontzean. A. GOMEZ

argitara aterako duen lehen aldia izango da —"beti saiatzen naiz herrian aurkezten, beste edonon baino lehen" dio—; baina baita bere galerian erakusketa propioa antolatzen duen lehenengo aldia ere: "Beti nabil besteentzat lanean... orain, behingoz bada ere, niretzat egingo dut lan (barre)". Erakusketa urtarrilaren 10ean aurkeztuko da Oreka Art galerian eta hilaren 28ra arte egongo da ikusgai.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Liher eta Oihán
Abenduaren 12an
eta urtarrilaren 4an,
7 eta 4 urte. Muxu
asko etxekuen
partez, bereziki
amama Porfiren
partez!



Malen, Joanes eta Aitor
Abenduaren 18an eta 19an, 16 eta 13 urte.
Maitxe zaitzuztegu, ilargiraino eta bueltan baino
askoz haratago. Zorionak! Etxekuak.



**Amets Caballero
Ruiz**
Abenduaren 11n 3
urte. Zorionaaak gure
mutil haundixari! 3
urte zoragarri
zurekin! Infinito
maitxe zaitzugu!



Nagore Zubizarreta eta Gorka Torrientes
Abenduaren 18an 6 urte. Zorionak bikote! Segi
gure bizitzak alaitzen eta astintzen. Asko Maitxe
zaitzuztegu.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Alexander Ros Zabala

Jose Luque Aguilar

Jaiotakoak

Yassine El Mourid

Kontugest
GRUP

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontugest.com

Txoko

Eguneko menuak,
plater konbinatuak,
hamburguesak,
ogitariekak,
nabesak,
pizirik,
gizakiak...

Entzuguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

IZGUIRRE
Igelseritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igelseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 613

administradores

Centro Vasco de Estudios
de Administración de Empresas
Escuela de Alta Administración
San Sebastián

**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai
eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen-
bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean obra handi bat egin nahi dugu. Horretarako aldamioak jarri beharko ditugu, eta jakina, arrisku egoera batzuk ere sor daitezke langileentzat. Jakin nahiko nuke zer nolako baldintzak betetzea exijitu behar diogun kontratistari, ez dezan gero hark edo beste inork komunitatea egin sor daitezkeen arriskuen erantzule.

Nire iritziz, bizilagunak ez daude behartuta inolako dokumenturik eskatzera eta ez dute zertan lan istripuen prebentzioaren alorrean gerta daitezkeen ez-beharren erantzukizunik hartu behar. Izan ere, erantzule bakarra obra egiteko kontratatuko enpresa da. Lan istripuren bat gertatuz gero, bizilagunen komunitatea ez da ezeren erantzule izango. Berdin dio kontratatutako enpresak lanerako baldintzak bete ez baditu edoeta istripuen prebentziorako planik ez badu.

OHARRA: Bizilagunen komunitateak enpresarekin edo enpresa-uga-zabarekin dauka lotura, baina ez enpresa horren agindutara lanean ari diren langileekin. Teknikoki ez dago azpikontratatorik.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ESKELAK

ESKELA



Alexander Ros Zabala



2024ko abenduaren 16an hil zen.

Narrea eta Uxue Ros Gilen aita eta institutuko langile ohia

Soraluze BHI Institutuak eta Keixeta Guraso Elkarateak bat egiten dute familiaren saminarekin

Soraluze BHI Institutua eta Keixeta Guraso Elkaratea

I. URTEURRENA



Isabel Artolazabal Izagirre



2023ko abenduaren 11n hil zen, 93 urte zituela.

Bi izar eder piztuta dare
Plazentziaren gañian,
Aitxitanari zuria batu
jakon jua zan urtian

Zuengandian jasotakuak
gugan daoz gaur egunian
Eta zabaltzen segiko dogu
bizirik garan artian.

Etxeoak.

Danobatgruppen Euskararen eguneko lehiaketa

Irabazlea: Amaia Arrieta Vallejo (Elgoibar)
Saria: Dastatze-menua Belaustegi jatetxean
Euskaraz izango gara!

 **DANOBATGROUP**



Euskalzaletasunaren alde:

aras



laibi
ELECTRICIDAD

Gorde erosketa-tiketa.



Gabonetan

EZ IZAN TXORIBURU

Kontsumitu buruarekin

Eta zalantzarik baduzu,

kontsumobide.eus



#KontsumitzenJakin

